



Aldeacuevako San Bartolome eliza (Karrantza Harana / Valle de Carranza)

Karrantza haraneko Aldeacueva auzoan kokatuta, dimentsio handiko eraikin honek zentratutako oinplanoa dauka; bertan, angeluzuzen baten barruan sartutako gurutze greziarra dago, baita beste lau espazio ere izkinetan eta sakristia absidean lerrokaturik dago. Oinetan korua dago, goialdean, fatxaden ondoan dauden dorreetara iristeko eskaileretara igarotzeko balio duten gelen artean.

Eraikina aurrean pilastra toskaniarrak dituzten pilareek euskarritzen dute; horiek oholta dorikoari eusten diote, eta horrek erlaizpe laua eta erlaiz korritua eta apurtua dauka. Egiturako elementu horiek bikain landutako aulkiterian parekatzen dira; gainerako hormak, berriz, zarpeatu egiten dira, lanabes pobregoak ezkutatu. Sorturiko ganga bi motatakoa da: kruzeroan kupula itsua eta gainerako geletan kanoiak.

Kanpoaldean bolumenen eraketa modular zurruna argi eta garbi ikusten da, barruko espazioak prisma kubiko bihurtzen direnean, kruzeroa tarterantz mailakaturiko prismak.

Fatxada puntu erdiko arku baten inguruko pantaila arkitektoniko handia da, lastra erraldoien artekoa; bertan, ateburuak daude eta tinpano laua duen frontoi zuzenarekin errematurik dago. Alboetan bi dorre daude eta horien buruan oso itxurakoak ez diren boladun pinakuluak daude.


Aldeacuevako elizak, XVIII. mendearen azkenean, proposamen arraroa jaso zuen, El Escorialeko tradizioaren eta oraindik guztiz asimilaturik ez zegoen neoklasizismoaren artekoa (ez zegoen guztiz asimilaturik alderdi formaletan, baina bai espazioaren ulermenean). Moldurak, basamentuak,

markoak eta, batez ere, fatxada nagusia El Escorialekoak bezalakoak dira; horrek, bestalde, Juan de Herrera arkitektoaren (El Escorialeko egilea) jarraitzaileek Gaztelako goi-ordokian egindako obrak dakarzkigu gogora. Absidearen proposamena modernoagoa da; bertan nitxo bat irekitzen da, titularraren irudirako; girlanda batek zeharkaturiko puntu erdiko arku da, kanalak dituzten zutabe dorikoen artean; hemen giro izotzia sortzen da, neoklasikoa, gainerako zatian baino abangoardiagoa.

Estiloaren zehaztugabetasunik ez hori ulertzeko, eraikuntzaren egoera historikoak ezagutu behar dira. Pedro Negretek (Mexikoko auzotarra, baina izatez Aldeacuevako) Mexikoko San Migelekoaren moduko tenplua eraiki nahi izan zuen bere herrian. Horretarako diru kopuru handia bidali zuen; hori erabilia, elizako kapituluak eraikuntza hasi zuen, tenplu berrirako planoak Juan Milla akademikoari aginduz, eta horrek 1789an eman zituen. Trazatzaile hori Juan de Villanueva arkitekto ospetsuaren delinearzailea zen; neoklasizismoarako trantsizioko artista zen eta estu lotuta zegoen XVII. tradizio klasizistari, eta tradizio horren adierazle nagusia El Escorial da. Mila akademikoak Aldeacuevan izandako eginkizun zaila hauze izan zen: San Migel elizako (160-1714) traza barrokoa garaiko zaletasun berrietara egokitzea. Obraren arduradunak Antonio Vierna arkitektoa (Trasmierakoa) eta Asturiasko Francisco Sierra hargina izan ziren.

Altzariei dagokienez, interesgarriena San Bartolomeren Martirioaren historia da; obra hori amaitu barik dago eta Madriliko Guerra eskultoreak 1891n zurean egin zuen. Halaber, Guadalupeko Ama Birjinaren mihise modernoa ere aipagarria da.

Testua: Ana Isabel Leis Alava.



Aldeacuevako San Bartolome eliza

Karrantza. (*Aldeacueva auzoa*).

Nola heldu:

Udaletxetik, "Lanzas Agudas" dioen desbideratzea hartuko dugu. Handik gutxira, beste desbideratze bat hartuko dugu eskuinetara, Aldeacueva auzorantz.

Bisitak egiteko ordutegia:

Gehienetan itxita dago. Giltzak abatetxean daude.

Hurbil dauden beste toki interesgarri batzuk:

(Karrantza)

- Aldeacuevako kobazuloa (*elizaren ondoan*).
- Cotobaseroko tumulua.
- Portillo txaleta. (*La Tejera, 1*).
- Buitrera. (*Aldeacueva*).